

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Txope-Tex boligrafoako erabiliko dugun segmentazio mota merkatu **zehatza** da, gure produktuak edo zerbitzuak behar berdinak edo antzekoak dituzten erosleen multzo zabal bati zuzenduta egon arren. Merkatu mota honek aukera ematen digu erabiltzaile askorengana heltzeko, guztiek idazteko beharra partekatzen dutelako eta, ondorioz, gure produktuak **eguneroko** erabileran zentzu osoa duelako. Horregatik, segmentazioa modu batera mugatzen dugu. Gure helburua da idazteko beharrari daukaten pertsona orori aukera berdinak eskaintzea.



Konkretuki, gure bezero potentzialak eskolan edo institutuan dauden ikasle guztiak dira, haiek dira gure produktuak modu jarraituan erabiltzeko aukera gehien dutenak. **Ikasle** horiek egunerokoan idaztearekin lotutako beharrak dituztenez, gure boligrafoak euren jarduera akademikoan ezinbesteko elementu bihurtzen dira. Horregatik, segmentazio masiboa aplikatuta ere, arreta berezia jartzen diegu ikasle gazteei, beraiek direlako produktua modu jarraituan eta etengabe erabiliko duten talde nagusia.

Horrez gain, eguneroko lanetan idatzi behar duten langile edo bestelako pertsonak ere gure produktuen erabiltzaile izan litezke, baina ez ditugu segmentazioaren barruan kokatzen, ez direlako gure xede nagusia. Hori dela eta, gure segmentazioaren fokua argi eta garbi **ikasle gazteetan** dago, haiek direlako Txope-Tex boligrafoa modu etengabea eta jarraian erabiliko duten talde nagusia.

